Min zaharrei, izen berriak

Nerea Arrienen 'Pentsatzeko txokoa' lanak jaso du aurtengo Lizardi Saria. 10-13 urte bitarteko gaztetxoei zuzenduriko liburuak pentsatzeari egiten dio gorazarre, modu ironiko eta dinamikoan

AINHOA LORES

IZENBURUARI jarraituz, bere protagonistaren begietatik pentsatzeari gorazarre egiten dion lana dugu *Pentsatzeko txokoa* (Erein). Hamaika urteko neskatila da Deba, istorio honetako protagonista. Bere begiradak erakusten digu nolakoa den eskola eta bertako giroa: nolakoak diren irakasleak eta neskatoaren lagunak, zer gertatzen den gela barruan, nolakoak diren ikasle-irakasle arteko harremanak... Ikasgelan, ingeleseko andereñoak pentsatzeko txokora bidaltzen ditu bihurrikeriatan dabiltzan ikasleak, zigortuta. Debak gogoko du zigor hori, pentsatzea oso gustuko duelako, eta arraro sentitzen da horregatik, zigorra bera gaiztakeria baino gehiago gustatzen zaiolako. Egin duenaz hausnartzeko txokoa dela azaldu dioten arren, Debaren helburua beste bat izaten da hara bidaltzen dutenean: bere barne-munduan murgiltzea.

Nerea Arrien (Lekeitio, 1976) da liburu honetako protagonistaren sortzailea. Deba "gaur egungo edozein neskato" izan daitekeela uste du Arrienek. "Guraso *esnob* xelebreak ditu, irakasle moderno bezain zaharkituak, lagun erreboltariak, baina denek gordetzen dituzte gure aiton-amonek zeuzkaten min zaharrak", dio lekeitiarrak. "Lehenago, nire ama ere Deba izango zen eta, urte batzuk barru, nire alaba izango da Deba, ziur. Izen berriek eta mozorro modernoek gauzak gutxi aldatzen dituztela azaldu nahi izan dut liburuan", jakinarazi du egileak.

Arrien umea zeneko hormaren kontra jartzeko zigor hura pentsatzeko txokoan bihurtu da gaur egun. "Ohitura handia daukagu min zaharrei izen berriak jartzeko. Badirudi modernoago izanda osatu egiten ditugula min horiek", iritzi dio autoreak. Lekeitiarraren ustez, *pentsatzeko txokoa* kontzeptuak berak badauka oinarri psikologiko bat, "baina auskalo nork ezagutzen duen". Dena den, ezagutu gabe ere, erabili egiten dela dio. "Lehenago hormaren kontra bidali eta aspertu egiten ginen. Orduan ere egongo zen aspertzea gustuko izango zuen norbait, ziur. Aspertzen garenean, barne altxor horrek distira egin dezakeelako. Gaztetxoak garenean, barrutik aberatsak garela pentsatu behar rean, arraroak garela pentsatzen dugu. Bai lehen eta bai orain, gutxi aldatu den gauza dela susmatzen dut", iritzi dio Arrienek. Hala, *arraro* izate hori lantzen da liburuan, oso modu dinamikoan, atal laburretan banatutako istorioan, esaldi labur eta zuzenekin, dinamismoa bilatuz, idazleak gustuko duen estiloan.



Sarketa ugari irabazi dituen arren, hauxe du lehen liburua Nerea Arrienek. PAULA ARBIDE

ESPEZIE BERRI BAT *Pentsatzeko txokoa* 11-12 urte bitarteko bere ikasleekin pentsatuta idatzi du Nerea Arrienek. Aurretik nerabeei Biologia irakasten aritu izan da lekeitiarra, baina alaba jaiotzean oposaketak atera eta Lehen Hezkuntzako irakasle izatera pasatu zen. "Orduarte nerabeekin neukan eskarmentua", kontatu du. Hala, 6. mailako gela hartan aurkitu zituen gaztetxo haiek "espezie berri bat" zirela iruditu zitzaion Arrieni. "Aldaketa handia izan zen niretzat. Konturatu nintzen badagoela adin tarte bat, 10-13 urte artekoa, ez direnak ez haur ez nerabe, edo biak direla aldi berean. Emozio eta sentimendu anabasa itzala zeukaten, laguntza isila eskatzen zuten. Haiei laguntzeko ahalegin batean, material bila hasi nintzen. Nerabezaroa eta haurtzaroa literaturan oso deskribatuta zeudela ikusi nuen, baina erdibidean dagoen adin honentzat gauza gutxi aurkitu nituen", kontatu du. Hala, gabezi hori ikusita hasi zen Arrien oraintsu argia ikusi duen liburua osatzen.

> "Badago adin tarte bat, 10-13 urte artekoa, ez direnak ez haur ez nerabe. Horiengan pentsatuta idatzi dut liburua", dio Nerea Arrienek

Ideia horri forma emateko literatura "biderik politena" izan zitekeela iruditu zitzaion lekeitiarrari, bere esanetan, "literaturan dena delako posible, pentsamendua bera pertsonai batean bihurtzea", adibidez. Horrela, pentsamendua elementu aktibo eta dinamiko bihurtu du Arrienek. Egilearen esanetan, "gaztetxoek barnean daukaten altxorra ikusten laguntzea" da liburuaren helburua. "Beraien emozioak, ametsak, nahiak, sentimenduak, ideiak... Horiek dira beraien altxorrak, eta hori ulertaraztea da asmoa. Barruan daukaten hori eta batzuetan ikusten eta ulertzen ez dutena, horixe dela norbere altxorra, eta altxor hori ez dela buruan bakarrik aurkitzen" helarazi nahi izan die irakurleei Arrienek. Bere esanetan, pentsamenduaren txokoa ez delako soilik burua, gorputz osoa baizik: bihotza, sabela... Baina, idazlearen aburuz, "arrazoiari eta pentsamendu arrazionalistari garrantzia larregi" ematen dio egungo gizarteak, "umeak gainditu eta ez-gaindituaren artean sailkatuz".

Hauxe da Arrienek kaleratzen duen estreinako liburua. Lana idatzita zuen lekeitiarrak Lizardi Saria lehiaketara aurkeztea erabaki zuenerako. "Sariaren oinarrietara doitzen zen idatzitakoa, ez neukan ezer galtzeko", kontatu du. Eta galdu baino, hamalau lanen artean *Pentsatzeko txokoa* suertatu zen irabazle. Ilusio handia eta batez ere poza sentitu zuen Arrienek espero ez zuen saria jasotzean. Idazten jarraitzeko bultzada eman dio sariak, baina, batez ere, "berarentzat idazten jarraitzekoa". Arrienentzat "beharrezko ariketa" delako idaztea. "Korrika egitera joaten naizen bezala, beste zapatila mota batzuk jarri eta bestelako izerdia botatzen dut idazten dudanean".

Urgull 2004 S.A.

Lege Gordailua: BI 1720-06

Zuzendaria: Adolfo Roldán
Koordinazioa: Julene Larrañaga
Ardura: Iñaki Mendizabal Elordi

Diseinua: Jesús Santamaría
Maketazioa: Janire Neches
Azala: Pablo Tillac